



# 12

# mesanotxean

**Komunikazioarekiko  
hurbilketa Gaztematikan**

*«Mesanotxean» izenburupean Gipuzkoako Foru Aldundiak kaleratzen duen e-GAZTEMIRA buletin elektronikoaren monografikoen bilduma da. Bertan Gipuzkoako haur eta gazteria politikekin zerikusia duen gairen bat aldian-aldian jorratzen da.*

*Eginkizun horretarako, «Gazte faktoria berritze-gunea» izeneko enpresaren laguntza teknikoa dugu «Mesanotxean» bildumaren edukiak prestatzeko orduan, GFAko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Zerbitzuaren zuzendaritzapean.*

# 12

**mesanotxean**

# mesanotxean 12

**Izenburua:** Komunikazioarekiko hurbilketa Gaztematikan.

**Egileak:** Gazteria Zuzendaritza Nagusia. Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua.  
Gipuzkoako Foru Aldundia.

Monografiko hau Mesanotxean Laborategiaren gogoeta prozesuaren ondorio da, eta haurren eta gazteen foru eta udal teknikariek parte hartu dute bertan. Joxe Jimenez (Gazte Faktoria) arduratu da laborategia dinamizatzeko eta testuak idazteaz.

**Mesanotxean Laborategia:** Isabel Babace, Edorta Bergua, Josean Castaño, Nagore Garcia, Urko Imaz, Arantza Martiarena, Nagore Narbaiza, Onditz Leizaola, Izaskun Roperio, Maria Solana, Maite Telleria, Xabier Ximenez eta Teresa Zinkunegi.

**Bilduma:** Mesanotxean. Haur eta Gazteria politiken monografikoa

**Bildumaren koordinazioa:** Edorta Bergua (GFA) eta Joxe Jimenez (Gazte Faktoria)

**Diseinua eta maketazioa:** Gazte Faktoria Berritzegunea eta IPAR Komunikazio Grafikoa

**Hizkuntz aholkularitza:** Maramara Taldea

© Gazteria Zuzendaritza Nagusia. Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua.  
Gipuzkoako Foru Aldundia

**Argitaraldia:** 2011-2012ko negua

# Aurkibidea

**Oinarrizko dokumentua:**  
**Komunikazioarekiko hurbilketa Gaztematikan**

orrialde 6/21

**Proposamenen dokumentua:**  
**Irizpideak eta ekintza ildoak**

orrialde 22/35

# Hitzaurrea

2010/11 Ikasturte hasieran, Gaztematika Foro Teknikoan, Mesanotxean laborategia bultzatzea erabaki genuen. Tokiko eta Lurraldeko gazte teknikariz osaturiko lantaldea, Gazte Faktoria erakundeko teknikariek dinamizatzen dutena. Haurrei eta gazteriar buruzko politikak biltzen dituzten Mesanotxean monografikoak sortzeko eta ekoizteko prozesuan lankidetzan aritzea da bere egiteko nagusia.

Talde honek, lehen urrats gisa, laborategiaren lehenengo saioa egin zuen, Mesanotxean jorratu beharreko gai interesgarriak zehazteko eta 2010/11 ikasturtean garatu beharreko lau gaiak erabakitzeko. Saio horretan aldian-aldian gai bat jorratzea erabaki zen: lehenengoa, herritartasun aktiboaren sustapena; bigarrena, Gaztematikak duen lekua Gazteriaren Euskal Legearen proposamenaren aurrean;

hirugarrena, Gaztematikaz kanpoko teknikariek duten iritzia; eta bukatzeko komunikazioarekiko hurbilketa Gaztematikan.

Mesanotxean 10. *Gaztematikak duen lekua Gazteriaren Euskal Legearen zirriborroaren aurrean* testua argitaratu ostean, 2010eko neguaren amaieran, beste lurralde batzuetako profesionalek Gaztematikaz zuten iritziari buruzko gogoetari heldu genion; eta udaberriaren hasieran ekin genion monografiko hau egiteko prozesuari. Izenburuan ikus dezakezuenetz, zenbaki honetan gure helburua Gaztematikatik komunikazioarekiko hurbilketa egitea da. Horretarako, ohiko metodoa erabili dugu. Lehenik, oinarrizko dokumentu bat prestatu dugu aztergaia finkatzeko eta, ondoren, lan arlo horretan esparru teorikoa adosteko eta irizpideak eta esku-hartze ildoak proposatzeko laborategiari ekin diogu. Metodologiaren berritasun gisa, aurrez aurreko bi laborategi egiteaz gain, monografiko honetan Mesanotxeaneko lehen laborategi digitala egin dugu (online).

# Oinarrizko dokumentua:

**Komunikazioarekiko hurbilketa Gaztematikan**



Monografiko honetan Gaztematikan komunikazio plan bat eraikitzen lagundu ahal dituden elementuak aztertzen saiatuko gara. Asmo horrekin Gaztematikarekin komunikatu behar diren pertsona eta eragile guztiei mezu koherente, bereizle eta erakargarriak bidaltzen lagunduko diguten helburu komunikatiboak definituko ditugu.

Hausnarketa eta sorketa prozesu honetan hurrengo helburuak planteatu nahi ditugu: Gaztematikaren eginkizuna eta helburu komunikatiboak definitzea.

Gaztematikaren eragile eta hartzaileen artean sortu nahi ditugun erlaziozko loturak identifikatzea.

Haur eta gazteria sistemetan ezarri beharreko komunikazio tresna eta esperientzia egokiak aurkeztea.

Gaztematikan komunikazioa inplementatzeko ekintza-ildoak eta gainditu beharreko erronkak iradokitzea.

Hasiera batean, komunikazio kontzeptua definitu beharra dugu, abiapuntua da eta. Jarraian, lortu nahi ditugun helburuak zehaztu eta ondoren solaskideak identifikatu behar ditugu, haien artean garatuko dugu-eta komunikazioa. Hori egin ondoren, gure eguneroko lanerako zenbait tresna egoki aurkitzen saiatu behar dugu. Eta azkenik, Gaztematikan komunikazioa eraginkorrago egiteko ekintza-ildoak, erronkak eta garatu beharreko jarduerak kolektiboki definitzen saiatuko gara Mesanotxeaneko laborategian.

## Komunikazioaren eginkizuna Gaztematikan

Abiapuntu moduan, Gaztematikaren oinarrizko dokumentuan komunikazioaren kudeaketari buruzko definizioa aurkeztuko dugu: «Sistema sozialak **komunikazio fluxuak** eta egiturak **baino ez dira, informazio transmisioak**, eta sistema bakoitzeko **barne eta kanporanzko harremanak eraikitzea.**»<sup>1</sup>

Definizio horrek gakoak ematen dizkigu Gaztematikaren komunikazioaren kudeaketa eredu baten lanketa bidea aurkitzeko. Horregatik, ezinbestekoa eta beharrezkoa da ondoko galderei erantzun egokiak topatzea: Zeintzuk dira barne eta kanpo eragile eta hartzaileak, zeintzuen artean komunikatu behar dugun? Zer informazio eta zertarako komunikatuko da? Zer tresna sor ditzakegu harremanak eraikitzeko? Zer antolamendu-arkitektura mota dugu komunikatzeko? Nola ziurtatuko dugu fluxu horiek badirela eta komunikazio harremanak sortzen ari direla?

Komunikazio objektua definitzeko lehenengo saio honetan, «herritarrentzako komunikazio eta heziketa»ri buruz Montserrat Boixek argitaratutako iritziaren berri ematea interesgarria iruditu zaigu, haur eta gazteen sustapenaren esparrura egokitzeke. Berak dioenez, gero eta gehiagok aldarrikatzen dute komunikazioa pertsona ororen oinarrizko giza eskubide moduan. «*Komunikaziorako eskubideak **pertsona orok informazioa eskuratzeko eskubidea ez ezik, produzitu eta igortzekoa ere hartzen du barne***»<sup>2</sup>.

1. Gaztematika. Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema. Oinarrizko Dokumentua. [linean]. Gazteria Zuzendaritza Nagusia. Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia: Gipuzkoako Foru aldundia, 2010. 60. Web: <http://www.gipuzkoagazteria.net/orria.php?pg=103&hizkntz=1> [kontsulta: 2012eko urtarrilaren 30a]

2. Boix, Montserrat. «Comunicación y educación para la ciudadanía». Aula Educativa [linean]. 2007. 62. 7-10. [http://www.juntadeandalucia.es/educacion/portal/com/bin/Contenidos/IEFP/ANDALUCIA\\_EDUCATIVA/ANDALUCIA\\_EDUCATIVA/1191243659486\\_opinion.pdf](http://www.juntadeandalucia.es/educacion/portal/com/bin/Contenidos/IEFP/ANDALUCIA_EDUCATIVA/ANDALUCIA_EDUCATIVA/1191243659486_opinion.pdf) [kontsulta: 2012eko urtarrilaren 30a]

Komunikazioa bideratzeko, sistemaren hartzaile nagusiak diren haur, nerabe eta gazteentzat, egoki iruditzen zaio hainbat ikuspegitik begiratzea:

- **Haur, nerabe eta gazteen ikaskuntza testuinguruetan aplikatutako komunikazio dinamika zehatzei buruzko informazio eta komunikazio eta hausnarketa eskubidearen** kontzeptu globaletik **abiatuta**.
- Lengoaiaren hausnarketatik eta eratzten ari diren estereotipoetatik eta azken horiek gure imajinarioa osatu eta mugatzeko duten ahalmenetik abiatuta.
- **Komunikabide tradizionalen edukien azterketatik eta mezuen deseratzetik abiatuta -eta ez bakarrik publizitatean, adi!-**.
- **Bitarteko alternatiboek** eta bereziki **teknologia berriek** eskaintzen dituzten aukeretara hurbiltzetik abiatuta, **herritar jarrera kritiko bat** sortzeko eta garatzeko.
- **Informazioa kudeatzeko dinamika berri bat ikasteko eta hori eza-gutza bihurtzeko beharretik abiatuta**, Komunikazioaren eta Informazioaren Teknologiek eskaintzen dizkiguten aukerak aprobetxatzen jakiteko, informazio kudeaketa horretan eze zik, baita haren eragintruke aukera guztietan ere.
- Eguneroko **praktikatik abiatuta**. **Ahots propioa izateko eskubidea erabili eta iritzia eman dezaten eta espazio publikoan kontuan hartuak izan daitezten haurrak** hezteko haurrak haien herritar eskubideak erabiltzeko trebatzea delako.

### Sistemaren komunikazio helburuak:<sup>3</sup>

Gaztematikaren oinarrizko dokumentuan proposatutako helburuak honako hauek dira:

1. **Barne komunikazioa, Sistemaren parte guztien artekoa**, pertsona orok denbora eta forma aldetik bere burua kokatzeko eta lan egiteko beharrezko duen informazioa eskura izan dezan. Inor ez da kanpoan jabetzen barrutik jakin beharko lukeenaz, horra hor gakoa.
2. **Eragile publikoen eta gizarte zibilaren arteko harremanen** kudeaketa egokia, hainbat mailatan, parte bakoitzaren eta egoera bakoitzaren aukera itxaropenetan, roletan, eskumenetan eta erantzukizunetan.
3. **Sistemaren eragileen eta kanpoko esparru edo instantzia nagusi guztien arteko harremanen kudeaketa**, Sistemaren eginkizuna bete dadin, loturak egin, itunak eraiki, prozesuak erraztu, erlaziozko kapitala sortzeko asmoz.

3. Gaztematika. Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema. Oinarrizko Dokumentua. [linean]. Gazteria Zuzendaritza Nagusia. Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia: Gipuzkoako Foru aldundia, 2010. 60. Web: <http://www.gipuzkoagazteria.net/orria.php?pg=103&hizkntz=1> [kontsulta: 2012eko urtarrilaren 30a]

4. **Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemaren eta haren hartzaileen ikusgaitasunaren, irudiaren eta kokapenaren kudeaketa**; kanpaina barne, edo, oro har, haur, nerabe eta gazteen egoera eta ikuspegiekin lotutako sentsibilizazio lan oro.
5. **Lan taldeen sorkuntza**, Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemaren barruan zein kanpoan, parte hartzen duten pertsonen ikuspegiak txertatuta, haien trebakuntza, erantzukizun, eginkizun, testuinguru eta abarren arabera.

Komunikazio prozesuetan eta harremanen kudeaketan Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemaren eragileek solaskide baliagarri gisa jarduten dute, eta bakoitzak bere neurri eta testuinguruan, Sistema ordezkatu, legitimatu eta ikusgai egiten du, haren eragina areagotuta eta haur eta gazteen sustapenerako ahalmen eta aukerak eraikita.

### Gaztematikaren eragileak eta hartzaileak

Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemaren haritik, **ERAGILEAK** definitzeko, hiru aldagai erabiliko ditugu: lehenengoa, funtzio eta izaeraren arabera (eragile publikoak eta eragile sozialak). Bigarrena, sistemarekiko parte-hartzearen arabera (haur eta gazteen sisteman edo beste sistema batzuetan). Hirugarrena, sistemaren barnean dagokion talde/pertsona motaren arabera.

Hurrengo grafikoetan tipifikazio horren ondotik sortutako eragileak aurkeztuko ditugu. Eragileak bistartzeko ahaleginak Gaztematikako loturak noren artean sortu behar diren zehaztea du helburu.

### Gaztematikako berezko eragileak

#### FORU ERAKUNDEA

- Arduradun politikoak
- Alderdi politikoek gazteak
- Haur eta Gazteria diputatua
- Haurtzaro eta Gazteri zinegotzia

#### TEKNIKO ERAGILEAK

- Foru teknikariak
- Udal teknikariak
- Zerbitzu-enpresetako teknikariak
- Hezitzaileak
- Informatzaileak

#### ERAGILE SOZIALAK

- Elkarateak
- Zerbitzu-enpresak
- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
- Trebakuntza erakundeak
- Profesionalen kolektiboak
- Komunukabideak
- Familiak


### Gaztematikako kanpo eragileak (bestelako sistemakoak: hezkuntza, gizartea, kultura...)

Gaztematikaren eginkizuna betetzeko bestelako instantzia edo sistema nabarmenen balizko eragileak zeintzuk diren bistaratzeko ere garrantzitsua da. Pertsona horiekin koordinatu behar dugu, itunak eratu, prozesuak erraztu, erlaziozko kapitala sortu eta elkarrekin lan egin, haur eta gazte zehar-politiken alderdi nagusiak lantzeko.



**Gaztematikaren hartzaileak.**

Haur eta gazteen sustapenerako sistemek hartzaileengan eragin soziala (emaitzak) izatea dute helburu nagusi. Horretarako, jarduera multzo bat eta esku-hartze zuzeneko zerbitzu sare bat eraikitzen dute, haur, nerabe eta gazteen gozamen, esperimentazio eta heltze prozesu pertsonal zein kolektiboak errazten dituen. Ahaztu gabe sustapen zerbitzuetan erabilitako lehentasunezko tresna harremana eta komunikazioa dela, pertsonen, taldeen edo erakundeen artekoa. Horregatik, esku artean dugun gaiari ekin aurretik, sistema horien onuradunak nortzuk diren zehaztea komeni da.



Gaztematikari dagokionez, hartzaille nagusiak Gipuzkoako haurrak, nerabeak eta gazteak dira. Horrekin batera, famili eta hedabideekin modu osagarrian esku hartzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Dimentsio bikoitz batean, hartzaille nagusiekin egindako lan zuzena indartzeko eta, bestalde, gurasoak zerbitzu horiek haien seme-alabengan duten eragin positiboaz sentsibilizatu eta kontzientziatzeko. Amaitzeko, hirugarren hartzaille talde moduan, haur eta gazte interesa duten erakundeak ditugu (heziketa-aisialdi sareak, guraso elkarteak, kolektiboak eta abar).

Haur eta gazte interesa duten erakundeen kasuan, funtzionalitate bikoitza eman daiteke. Zenbait erakunde, funtzionamendu eta eginbide alderdi jakin batzuei dagokienez, eragile izan daitezke, eta beste batzuetan, aldiz, hartzaille.

### Komunikazio planaren balizko ekintza ildoak

Gaztematika sistemaren parte guztien eta haren hartzailleen komunikazio beharrei erantzuten saiatuko liratekeen bost ekintza ildoren inguruan eraiki liteke.

Horietako bakoitzean, komunikazioan eragina duten zenbait faktore eta ekintza ildo bakoitzean lan egiteko planteia ditzakegun balizko erronkak ere agertuko ditugu.

#### 1. Ildoa\_BARNE KOMUNIKAZIOA

Barne eragileak: Politikariak, profesionalak eta Haur eta gazteria entitateak

#### 2. Ildoa\_ERAKUNDEEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA

Beste sistema batzuetako eragileak

#### 3. Ildoa\_HEDABIDEEKIN KOMUNIKAZIOA

Haur, nerabe eta gazteen ikusgaitasun aktiboa komunikabideetan

#### 4. Ildoa\_ZUZENEKO KOMUNIKAZIOA

Sistema hurbilaraztea haur, nerabe eta gazteengana

#### 5. Ildoa\_JAKINTZA TEKNIKOA

Ikusgaitasuna eta komunikaziorako online tresnak

Faktoreen analisirako, «Las políticas juveniles. Dificultades para su implementación» txostena erabili dugu, Olegaria Cuestak Gazteak Munduak Eraikitzen Nazioarteko Kongresuan<sup>4</sup>, Madrilen 2010ean aurkeztutakoa.

Aurkezpenean, gazteen politikak gauzatzekoan komunikazioan eragiten duten faktore ohikoenen berri eman zuen. Hau da, prozesu komunikatibo horietan parte hartzen duten faktore eta subjektuek beren ekintza sozialaren arrakasta edo porrota azaltzeko zertan lagundu dezaketzen ikertzea. Helburu hori betetzeko, gaia hiru aldagairen arabera garatuko dugu, berak funtsezkotzat jotzen dituenak: kokapen instituzionala, bere harreman administratiboa eta parte hartzen duten eragile sozialak.

4. Cuesta, Olegaria. Las políticas juveniles. Dificultades para su implementación [linean]. Gazteak Munduak Eraikitzen Nazioarteko Kongresua: Capacidades y límites de una acción transformadora, 2010eko urriaren 14 eta 15. Madril: UNED-INJUVE, 2010. Web: [http://construyendomundos.org/congreso/downloads/panel4/PolíticasJuveniles\\_CuestaOlegaria\\_Panel4.pdf](http://construyendomundos.org/congreso/downloads/panel4/PolíticasJuveniles_CuestaOlegaria_Panel4.pdf). [kontsulta: 2012eko urtarrilaren 30a]

## 1. ILDOA > BARNE KOMUNIKAZIOA: BARNE ERAGILEAK: POLITIKARIAK, PROFESIONALAK ETA HAUR ETA GAZTERIA ENTITATEAK

### Arlo politikoa

#### Komunikazioan eragina duten faktoreak:

**Kokapen instituzionala.** Instituzioek parte hartzaile diren kolektibo edo egoerak nola ulertzen dituzten, hori erabakigarria izango da haien kokapen instituzionalari dagokionez. Gaztea hazkuntzarekin (gazte izaera) lotzen bada, Kultura eta Hezkuntza sailan kokatuko da, esate baterako; eta arazo edo zailtasun bezala ikusten bada, gizarte politiken esparrua izango da, batez ere. babes emango diona.

**Ekintza estrategiko eta erabaki hartze maila.** Arlo politikoak proiektu batek aurrera eramateko beharrezko aurrekontua izatea bermatzea du eginkizun. Bere komunikazio kudeaketaren eraginkortasuna ekimenak ikusgai izateko eta, oro har, herritarren onespena lortzeko ahalmenearekin dago lotuta. Komunikazioak ekimenak nor (alderdi politikoa, instituzioa edo pertsona) bultzatzen dituen agerian utzi behar du, balizko hauteskunde emaitzek baldintzatuta baitaude haiek. Horregatik dute balio handiagoa ekintza kuantifikagarri, harrigarri eta ikusgaiek.

**Administrazio kudeaketa maila (udalerrietan, probintzietan, autonomia erkidegoetan... ).** Lotura osagarria edota eskumen arlokoa izan daiteke. Lehenengoa, indarrak batzeko eta eraginkorragoa izateko interesa dagoenean. Bigarrena, beste maila instituzionalen bat lehiakide moduan ikusten denean, harremanak zaildu egiten dira eta ez da koordinazio egokia lortzen. Esparru horretan botere handien zein instituziok duen jendaurrean erakustearekin lotura estua izaten du azken honek.

**Instituzioen legitimazio sozialaren beharra.** «Instituzioek beren proposamenak legitimatzea bilatzen dute gizarte ordezkapen zabala suposatuta, eta horregatik gazteen ordezkariak dituzten organoak izan nahi dituzte. Parte hartzeaz hitz egiten dute, baina benetan organo instituzionalek beraiek gauzatutako, prestatutako, justifikatutako eta ezarritako ekintza jakin batzuekiko lotura bat -eta ez komunikazioa- ezartzen dute. Behin helburuak beteta, lotura apurtu egiten da, eta bideak ez dira berriro elkartuko, beharrian politikoez horixe eskatu arte»<sup>5</sup>.

#### Erronkak:

- **Haur eta gazteen politiken eskumen soziala (objektua/subjektua) mugatzea.**
- Fenomeno bat existitzeko, ezaguna, identifikagarria eta ikusgaia izan behar du. Lan honek oinarri soziala lor dezake, analisi akademiko edota politikoen babesaren bidez, eta ondoren, masa komunikabideen hedapenarekin.

5. Cuesta, Olegaria. Las políticas juveniles. Dificultades para su implementación [linean]. Gazteak Munduak Eraikitzen Nazioarteko Kongresua: Capacidades y límites de una acción transformadora, 2010eko urriaren 14 eta 15. Madril: UNED-INJUVE, 2010. Web: [http://construyendomundos.org/congreso/downloads/panel4/PolíticasJuveniles\\_CuestaOlegaria\\_Panel4.pdf](http://construyendomundos.org/congreso/downloads/panel4/PolíticasJuveniles_CuestaOlegaria_Panel4.pdf). [kontsulta: 2012eko urtarrilaren 30a]

- **Haur eta gazteen politiken eskumen politikoak politikoki aitortzea.** Horrek baliabide sozialen beharra duen alor moduan kontuan hartzea dakar. Eta horrek baldintzatu egingo du baliabide kopurua.
- **Haur eta gazteen sustapenerako sistemak sortzea,** administrazio eskumen maila bakoitzaren funtzioak zehazten lagunduko dutenak: udalerrietan, probintzietan, autonomia erkidegoetan, Estatuan eta Europan.
- **Eragile arteko komunikazioan hermetikotasuna gainditzea.** Eragile politikoak batez ere beren gisakoen artean komunikatzen dira, eragile tekniko eta sozialekiko komunikaziorako bideak dauden arren.
- **«Komunikaziorako estilo liburu bat»** lantzea. Arlo politikoko funtzio nagusietako bat, haur eta gazteen politiken komunikazio publikoaren funtzioa, betetzen lagunduko duen tresna bat eskuratzeko saioa da. Horrek masa komunikabideekiko harreman instituzionala eta online komunikazioa hartu behar ditu barne.

## Esparru teknikoa

### Komunikazioan eragina duten faktoreak:

**Kudeaketa maila.** Profesionalen eginbehar nagusia gazteen politikak diseinatu eta kudeatzea da. Erabiltzaileen aurrean, teknikoak dira instituzioaren irudi publikoa. Erdiko mailan, beste bi arloen artean, daudenez, hierarkian betetzen duten lekuak erabakiko du zein arlotatik sentitzen diren gertuago. Arlo politikoen kasuan bezala, eskumen eta interferentzia harremanak gertatzen dira teknikoen beraien artean, baita beste bi arloekin ere.

**Maila funtzionala eta kokapena.** Harremanak betebeharreko eginkizunen mende daude zuzen-zuzenean. Zenbait ataza egiteko edo proiektu jakin batzuk garatzeko beharren arabera ezartzen dira. Horrela, arlo politikotik gertuago lan egiten duten pertsonen interferentziak eta osagarritasuna izaten dituzte kargu politikoenekin. Zerbitzuetan lan egiten duten teknikoak, esparru sozialetik gertuago daudenean, aldiz, interferentzia edo osagarritasun harreman handiagoak izaten dituzte arlo horrekin. Gazteekin eta haiekin lanean ari diren profesionalekin harremanetan daudenez, gazteriaren eskakizunak, beharrezkoak, zailtasunak eta potentzialtasunak argiago antzematen dituzte.

**Horizontaltasun maila erabakietan.** Arlo teknikoko kideen arteko komunikazioa errazteko funtsezkoa da talde teknikoan funtzio-eskala gehiegi ez egotea.

### Erronkak:

- Profesionalek beren lana betetzeko beharrezkoa duten informazioa eskura izatea.
- Komunikazio espazio finkoak ezartzea arlo teknikoko pertsonen artean.
- Esparru teknikoak arlo politikoen eta sozialaren arteko komunikazioa erraztea.
- Trebakuntza tresnak sortzea, online formatuetarako trebetasun komunikatiboak eskuratzeko.
- Informazioa ezagutza tekniko bihurtzeko prozesuak egituratzea.

## Haur eta gazte gaietarako erakundeen esparrua

### Komunikazioan eragina duten faktoreak:

**Koordinazio eta erantzun sozialerako ahalmen maila.** Heterogeneotasunak eta elkarten arteko lehia harremanek ere instituzioekiko lankidetzak eta etengabeko presio sozialerako espazioak sortzea zailtzen dute. Horregatik, gizarte zibiletik agenda politikoa aldatzeko aukera kohesio soziala eta instituzioei erantzun antolatua emateko ahalmena adina murrizten da, proportzio berean.

**Elkartzeko modu berriak.** Gaur egungo errealitatean, beste fenomeno bat ari da biziki azaleratzen: interes edo eskakizun jakin batzuen inguruan elkartzen diren taldeen mugimendua, elkarte tradizionalak indarra galtzen duten bitartean. Talde funtzionamendu forma berri horiek ezin dute, ez eta nahi ere, instituzioen erritmo geldoa jasan, eta ez daude gehiegizko kontrol burokratikoaren mende ibiltzeko prest.

**Elkarteko kideen elkarrizketa rola.** Instituzioaren (eragile teknikoak, batez ere) eta erakunde sozialen arteko komunikazio prozesu horretan sortzen den dinamikan, partaide batzuek beste batzuek baino konpromiso handiagoa dutela sentitzen dute. Prozesu horrek solaskideen arteko hutsunea sortzen du: kudeaketa funtzioekin arduratuago daudenak, batetik, eta beren elkartearen jardura zuzenekin identifikatuago eta inplikatuago daudenak, bestetik.

**Klase politikoaren irudi estigmatizatua.** Gazteak talde sozial moduan bereizten dituen estigma bat dagoen bezala, politikariei ere beren asmo eta funtzioak zalantzan jartzen dituen ikuspuntu batetik begiratzen zaie. Txosten askotan agerian uzten dute gai hori, hots, gazteen eta instituzioen arteko mesfidantza harreman bat dagoela. Nabaria da lotura hori ez dela berez ematen; aitzitik, politikarien etika gutxienez susmagarria dela pentsatzen duten gizarte zibilaren zenbait esparrutan sozializatzeagatik gertatzen da hori (Pietro: 2000; Morán; Benedicto: 2002).

**Kanpo komunikazio falta.** «Komunikazioa funtsezkoa da... erakunde sozialak komunikatzeko sortzen dira. Lehenik, erakundeek berezkoa dute eraldatu beharra. Bigarrenik, balore berriak sortu eta gustuko ez ditugun arau sozialak aldatu nahi baditugu... komunikatu beharra dugu...Eta ez hori bakarrik. Erakundearen ingurune sozialak berak eskubidea du erakundea zer den, nortzuek osatzen duten, zer egiten duten, eta abar jakiteko. Horregatik, helburuak lortzeko komunikatu beharraz gain, erakundeek ingurune sozialean beren burua ezagutarazteko betebeharrak etikoak ere badute. Horrela, komunikazioa ez da tresna soilak (hori ere bada), funtsezko helburua baizik (Xabier Bañuelos Ganuza:2010)<sup>6</sup>».

6. Boix, Montserrat. «Comunicación y educación para la ciudadanía». Aula Educativa [linean]. 2007. 62. 7-10. [http://www.juntadeandalucia.es/educacion/portal/com/bin/Contenidos/IEFP/ANDALUCIA\\_EDUCATIVA/ANDALUCIA\\_EDUCATIVA/1191243659486\\_opinion.pdf](http://www.juntadeandalucia.es/educacion/portal/com/bin/Contenidos/IEFP/ANDALUCIA_EDUCATIVA/ANDALUCIA_EDUCATIVA/1191243659486_opinion.pdf) [kontsulta: 2012eko urtarrilaren 30a]



**Erronkak:**

- **Elkarteei komunikazioa tresna estrategikoa dela ohartarazteko** lan egitea
- Haur eta gazte interesa duten erakundeetako kideei **komunikaziorako ahalmena garatzeko trebakuntza tresnak** eskaintzea.
- Erakundeei **komunikazio planak garatzeko baliabideak** ematea.
- **Komunikabideekin lankidetzak hitzarmenak** egitea, erakunde sozialak bizitza sozialaren protagonista moduan ager daitezzen.
- Erakunde sozialekin **lankidetzak hitzarmenak** egitea, **komunikabide publikoetako informazio produkzioan parte har dezaten** (presentzialetan eta online).
- Haur eta gazteen kolektibo eta erakundeekin lotutako **albisteen analisirako tailerrak** antolatzea.

## 2. ILDOA > ERAKUNDEEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA: BESTE SISTEMA BATZUETAKO ERAGILEAK

**Komunikazioan eragina duten faktoreak:**

**Politika integrala, koordinaziorako bide moduan.** Azken urteotan, haur eta gazteen politikak beste sistema eta sail batzuetara hurbildu dira, Politika Integralen bitartez, gazteen bizitzan eragiten duten zenbait faktore batera lantzeko asmoz. Ohikoena lehia harremanak eraikitzea izan da, lankidetzak harremanak sortu beharrean.

**Zenbat eta justifikazio handiagoa, orduan eta aurrekontu zabalagoa.** Haur eta gazteen eremuekiko dinamika instituzionalaren koordinazioa sail horren esku hartzea handiagoa justifikatzeko erabili da. Beraz, beharrian gehiago justifikatzen badira, aurrekontu zabalagoa lortzeko aukera handiagoa dago, hau da, baliabide gehiago eskuartzeko aukera handiagoa. Ondorioz, eta horrekin batera, negoziazio maila jakin batean, botere politikoari eusteko interesa eta era arrazionalen planifikatutako koordinazioa aurrez aurre egon daitezke.

**Erronkak:**

- Eremu bakoitzean haurren, nerabeen eta gazteen **gaur egungo beharrianen analisirako sistema bat edukitzeko** lan egitea.
- **Planifikazioa ezarritako helburu jakin batzuetan oinarrituta egin beharra** onartzea, nor bere esku-hartze eremutik.
- Zehar-alderdiren bati dagokionez **helburuak eta programak adosteko** aukera planteatzea.
- **Solaskide politiko eta tekniko baliagarri bat** eskaintzea, beste sistemekiko harremanetarako.

### 3. ILDOA > HEDABIDEekin KOMUNIKAZIOA: HAUR, NERABE ETA GAZTEEN IKUSGAITASUN AKTIBOA KOMUNIKABIDEETAN

#### Komunikazioan eragina duten faktoreak:

Gonzalo Montiel Roigek «Políticas de juventud y comunicación en España. Juventud y sociedad digital (2008)» izeneko doktoretza-tesian aurkeztutako azken ondorioak abiatuko dugun jarduera-ildo berri honetarako irtenbide izan daitezzen nahi dugu.

Ondorioztatu duenez, egindako azterketak hasierako hipotesia berretsi du. Hipotesi horren arabera, *Espainiako gazteria eta komunikazio politikek **lankidetzan nahiz gazteak harreman konplexuak ezartzen dituzte merkatuaren liberalizazio, hedapen eta eraginarekin, kultura industriekin, telekomunikazioekin eta, oro har, Informazioaren gizartea hedatzearekin. Hau da, gaztea helduarora eta burujabetzara bidean hezi eta laguntzea da estatuaren ardura. Herritar oso eta gizarte demokratikoko kide hori ordea, kontsumitzaile izatera bideratzen da. Aldiz, **herritar trebatu, parte hartzaile eta aktiboez osatutako informazio gizartea eraikitzeke konpromisoak ez du egiazko garrantzirik agenda publikoetan.*****<sup>7</sup>.

Ikerlanaren ondorio nagusiak:

1. Komunikabideek ez dute egiazko mekanismorik gazteen parte-hartzea eta presentzia arautzeko eta gazteen errealitatearen tratamendu orekatu, garden eta anitza bermatzeko.
2. Ez dago mekanismorik informazio, entretenimendu eta kultura-hedapeneko eremuetan gazteek parte-hartzea ahalbidetzeko, izan ere, gazteen politikatan gazteari kultura eta aisialdi eskaintzaren bezero irizten zaio oraindik, eta ez hiri-eragile.
3. Espainiako gazteria eta komunikazio politiken agiri estrategikoen arabera, gazteei administrazio publikoaren mezua helarazteko tresnak dira komunikabideak.
4. Komunikabide publikoek zerbitzu publikoa eskaini behar izate hori ez da betetzen, ez behintzat gazteei begirako ekintzei dagokionez.

#### Erronkak:

- Gazteria **nortasun eta jardunbide heterogeneoko taldea dela adieraztea** (Gasteizko II. Gazte-plana).
- Gazteak protagonista eta komunitatearen aldeko herritar aktibo gisa azaltzea (Gasteizko II. Gazte-plana).

7. Montiel Roig, Gonzalo. Políticas de juventud y comunicación en España. Juventud y sociedad digital. [linean]. <http://www.thesisenxarxa.net/TDX-0930109-114128/index.html> Valentziako Unibertsitatea, Filologia fakultatea, 2008. [kontsulta: 2012eko urtarrilaren 30a]

- Haur eta gazte sustapen-zerbitzuetan egindakoak komunikabideetan agertzea.
- Haurrak, nerabeak eta gazteak komunikabide publikoen informazio eta komunikazio ekoizle bihurtzea.
- Errealitate mediatikoan esku hartzea **erregulazio eraginkorrerako estrategien** bidez (Gonzalo Montiel Roig: 2008).
- Ikus-entzunezkoen erabiltzaile eta kontsumitzaileen elkarteak bultzatzea, gazteak beren eskubideen defentsarako erakundeetara jotzea sustatuz (Gonzalo Montiel Roig: 2008).
- **Espazio publikoari lehentasuna ematea gazteria eta komunikazio politiken garapenerako esparru nagusi bezala.** Beharrezkoa da komunikabide publikoetan parte hartzeko mekanismoetan sakontzea eta gizartea egituratzea eta gazte-entzako politika parte-hartzaileen garapena erraztuko lukeen tokian tokiko komunikabide sarea abian jartzeko aukerak aztertzea. (Joaquim Casal: 2002)

#### 4. ILDOA > ZUZENKO KOMUNIKAZIOA: SISTEMA HURBILARAZTEA HAUR, NERABE ETA GAZTEENGANA

Gabriel Navarrok<sup>8</sup> azaltzen duenez, komunikabide baten eta gazteen politiken esparruan esku hartzen duen erakunde publiko baten artean aipa ditzakegun desberdintasunak alde batera utzita, gaur egun antzekotasun nabarmenak ageri dira ondoko gai sakon eta konplexuaren inguruan: Zer estrategia erabili gazteak gazteen politiketara hurbildu eta haietan parte hartzeko?

«Younger Thinking»<sup>9</sup>, Christopher Sopher ikertzaile gazteak egindako ikerketan, komunikabideek gazteekin konektatzeko gazteok ulertu (konprenitu) behar dituela ondorioztatzen du; 9 estrategia proposatzen dizkigu gazteen hiri parte-hartzea indartzea lortzeko.

8. Navarro, Gabriel. Gazteak gazteen politiketara hurbiltzeko estrategiak. [linean]. Gazteak Munduak Eraikitzen Nazioarteko Kongresua: Capacidades y límites de una acción transformadora. Madril, 2010eko urriaren 14 eta 15. [http://construyendomundos.org/congreso/downloads/panel4/EstrategiasParaAcercarPoliticar\\_NavarroGabriel\\_Panel4.pdf](http://construyendomundos.org/congreso/downloads/panel4/EstrategiasParaAcercarPoliticar_NavarroGabriel_Panel4.pdf) [kontsulta: 2012eko urtarrilaren 30a]

9. Christopher Sopher. 10 maneras de mejorar los medios de comunicación de noticias para jóvenes [linean]. Blog. <http://www.youngerthinking.com/> [http://translate.google.es/translate?hl=es&sl=en&u=http://www.youngerthinking.com/%3Fpage\\_id%3D86&ei=XCghT6f8DMHsOdHrqLsl&sa=X&oi=translate&ct=result&resnum=2&ved=0CC8Q7gEwAQ&prev=/search%3Fq%3D%25E2%2580%259CYounger%2BThinki ng%25E2%2580%259D%2B%2BSopher%26hl%3Des%26prmd%3Dimvns](http://translate.google.es/translate?hl=es&sl=en&u=http://www.youngerthinking.com/%3Fpage_id%3D86&ei=XCghT6f8DMHsOdHrqLsl&sa=X&oi=translate&ct=result&resnum=2&ved=0CC8Q7gEwAQ&prev=/search%3Fq%3D%25E2%2580%259CYounger%2BThinki ng%25E2%2580%259D%2B%2BSopher%26hl%3Des%26prmd%3Dimvns) [kontsulta: 2012eko urtarrilaren 30a]

Estrategiak	Gazte-esperientziak
<p><b>1 Egoera eta ikur egokiak erabili</b></p>	
<p>Beharrezkoa da gazteei bide-seinaleak ematea istorio baten esanahia uler dezaten eta eragile nagusien eta horien motibazioen eta gaiaren eraginei buruzko galderei erantzuteko. Internetek seinale gehiago emateko era eraginkorragoak eskaintzen ditu eta irakurleari eduki-atal bat testuinguru zabalago batean kokatzen laguntzen dio.</p>	<p>Nola erabiltzen dituzte informazio-komunikabideak Xixongo gazteek? Komunikabideen kontsumo-ohituren gaineko <b>Xixongo Gazteriaren Behatokia</b> CTIC-SI Fundazioaren laguntzarekin (taldean eta internet bidez)</p> <p><b>Hezkuntza-zentroek Zaragozako CIPAJen egoitza bisitatzea</b>  <a href="http://www.zaragoza.es/ciudad/sectores/jovenes/cipaj/cont/fichaCipaj_Tra_mite?id=4401">http://www.zaragoza.es/ciudad/sectores/jovenes/cipaj/cont/fichaCipaj_Tra_mite?id=4401</a></p>
<p><b>2 Kalitatezko profesionalak hautatu</b></p>	
<p>Nekez lortuko dira kalitatezko jarduerak gazteria programa eta zerbitzuetako langileen etengabeko trebakuntza, heziketa eta birziklapenik gabe.</p>	<p><b>ANDALUZIAKO GAZTERIA ARLOKO PROFESIOALEN ELKARTEA</b>  <a href="http://aaptj.blogspot.com/">http://aaptj.blogspot.com/</a></p> <p><b>KATALUNIAKO GAZTERIA ARLOKO PROFESIOALEN ELKARTEA</b>  <a href="http://www.joventut.info/">http://www.joventut.info/</a></p> <p>Gazte-informaziorako zerbitzu sarea: <a href="http://redsij.ning.com/">http://redsij.ning.com/</a></p> <p><b>SHERYCA</b> Europako Gazteria Arloko Profesionalen Online Plataforma:  <a href="http://sheryca.org/">http://sheryca.org/</a></p>
<p><b>3 Albisteak pertsonalizatu</b></p>	
<p>Gazteentzako oso erabilgarria gerta daiteke zenbait tresna ematea albisteak bere egin ditzaten. Mota horretako baliabideek web inguruneen ulermena eta nabigagarritasuna hobetzen dute. Lehenetsun arabera eta iruzkin edo gomendioen arabera egokitu eta pertsonalizatzeko funtzio adimendunak erabilia eta eduki erabilgarriak eskainiz areagotu daiteke parte-hartzea eta hobetu ulermen eta nabigagarritasuna.</p>	<p>BARAKALDO Aisialdi Hezitailerako eta Parte-hartzeko plana <b>GILTZARRI Giltzarri plataformaren komunikazio interaktiboa</b> Tuenti bidez.</p> <p>Tuenti bidez balio-heziketa emateko proposamenak. <b>SMS bidezko balio-heziketa.</b></p> <p><b>Cartagenako Gazte Espazioa.</b></p>
<p><b>4 Diseinua birpentsatu</b></p>	
<p>Albistari digitaletan dagoen informazio eskergaz kexu dira gazteak, nabigazioa oztopatzen duelako. Web guneek honela izan behar dute: sinpleak, bete gabeko espazio askokoak; eduki garrantzitsuena argi adierazi eta erabiltzaileek arazorik gabe jarraitzeko aukera eskaintzen dutenak, bai bilatzen den informazioaren zati bat aurkitzeko, bai beste artikulua bat bilatzeko.</p>	<p><b>JOVEN.BO.</b>- Bolivia. Helburua: Boliviako gazteen artean elkarriketa eta eztabaida piztea, Bolivian gaztea izatea zer den eta herrialdearen etorkizunari buruzko iritzia azal dezaten. <a href="http://www.joven.bo/">http://www.joven.bo/</a></p> <p>Facebook bidezko iruzkinak egiteko: <a href="http://www.facebook.com/joven.bo">http://www.facebook.com/joven.bo</a></p> <p><b>Ikasleentzako Kataluniako Informazio eta Zerbitzu Zentroa</b> (CISEC) Gazteentzako informazio, dinamizazio eta mobilizazio 2.0 tresnak. <a href="http://www.cisec.info/">http://www.cisec.info/</a></p>
<p><b>5 Formatu berriekin esperimentatu</b></p>	
<p>Gazteek albisteak kontsumitzen dituzten modua kontuan hartuta, istorioen egitura tradizionala (testua eta argazkia) ez da berriok aurkezteko erarik egokiena. Horregatik, albiste-erakundeek informazioa aurkezteko forma berriak saiatu behar dituzte. Eta behar bada, gai bati buruz kazetariak eta erabiltzaileak ikuspegi desberdinak eta elementu osagarriak gehitzeko aukera eskaintzen duten wikiak erabiltzea, proposamen interesgarrietakoa da.</p>	<p><b>L'Hospitaleteko GoogleGroups.</b> Nazioarteko Mugikortasun eta Parte-hartzerako Gazte-erakundearen Plataforma Aktiboa.</p> <p>L'Hospitaleteko hogeita hamar gazte-elkartek osatzen dute «<b>Tu casa de la Juventud en el Tuenti</b>» Punta Umbría.</p> <p><b>SKYPE bidezko Baezako online</b> informazioa</p>
<p><b>6 Herritar-kazetaritza eta tokian tokiko estaldurak zabaltu</b></p>	
<p>Ikerketen arabera, gazteek haien komunitatearekin lotutako informazioa eskatzen dute, alegian, tokian tokiko gaiekin lotutakoa. Bertako arazoan gaineko garrantzizko informazioa foreekin eta erabiltzaileen parte-hartzearekin osatu daiteke, ikasleek ekoiztutako albisteak babestuz, esaterako.</p>	<p><b>Parla City:</b> <a href="http://parlacity.wordpress.com/2010/09/13/tribuna-ciudadana-jovenes-parlenos-i/">http://parlacity.wordpress.com/2010/09/13/tribuna-ciudadana-jovenes-parlenos-i/</a></p> <p><b>Teleclip</b> «Haurrek 7 eta 16 urte bitarteko mundu osoko gazteentzako internet bidez egindako Espainiako lehenengo telebista-katea da. 2007an hasi zen emititzen Madrilgo Complutensearen eta Coruña Unibertsitatearen arteko proiektu batetik abiatuta». <a href="http://www.teleclip.tv/">http://www.teleclip.tv/</a></p> <p>«<b>Mi asterisco</b>» (Argentina): <a href="http://www.miasterisco.com.ar/">http://www.miasterisco.com.ar/</a></p> <p><b>BOTTUP</b></p>

**7 Gazteak albiste-sortzaile bihurtzea**

Besteak beste, komunikabideek gazte gehiago kontratatu behar dituzte eduki-sortzaile modura: Blogariak, idazleak, editoreak...baita gazteak albiste-emaile postuetan kokatu ere.

**EUROPOCKET.TV** Gazteek eta gazteentzako egindako Europako telebista. <http://www.europocket.tv/> eta <http://www.facebook.com/europocket> **GIPUZKOANGAZTE.INFO EZAGUTUZ.** Gipuzkoako Gazte Informaziorako Zentroei buruzko dibulgaziozko bideoa, Donostiako Diseinu eta Teknologia Berrien Eskolako bi ikaslek sortua. <http://www.youtube.com/watch?v=8D6TCoxgDc>

**8 Informazio-educia handitu eta elkarbanatzeko funtzioak hobetu**

Albiste-enpresek badakiten arren gazteek albisteak gero eta gehiago lagunen artean, elkarrizketa eta sare sozialen bidez banatzen dituztela, oraindik ere elkarbanatzeko funtzioak topatzeko zail dago web gune horietan.

Bat egiteko eta elkarbanatzeko aplikazioak erabiltzea (AddThis) eta iruzkinak txertatzea **IntenseDebate Informajoven web gunean:** <http://www.informajoven.org/index.asp>

**Alcobendas: IMAGINA** Alcobendaseko Gaztearen Etxearen Atariak Bluetooth bidezko komunikazio tresna bat garatu du: [http://www.imaginalcobendas.org/index.php?option=com\\_content&view=article&id=54&Itemid=99](http://www.imaginalcobendas.org/index.php?option=com_content&view=article&id=54&Itemid=99)

**Telejoven Foroa.** Instituto Aragonés de la Juventud. <http://foro.telejoven.com/>

**9 Telebistako albisteentzako ikuspegi berriak bilatzea**

Telebista helmen handiko tresna da oraindik ere, duen indar bisualarengatik eta ia mundu osoan hedatuta dagoelako. Telebista kateek, online edukiak ekoiztean eta gai espezifikoak aukeratzean, arreta jarri beharko lukete gaurkotasan handikoena bereziki nabarmentzeko.

**JOVEN.TV.** Instituto de la Juventud de Castilla La Mancha: <http://www.joventv.es/>

## 5. ILDOA > JAKINTZA TEKNIKOA: IKUSGAITASUNA ETA KOMUNIKAZIORAKO ONLINE TRESNAK

**Ikusgaitasuna<sup>10</sup>:**

*Visibilidad* liburuko zenbait pasarte erabiliko ditugu hausnarketarako oinarri bezala, gure esku-hartze esparrurako baliagarri izan daitezkeelakoan, hots, haur eta gazteen promoziorako politikak. Informazioz eta publizitate inpaktuez gainezka bizi gara. Horregatik, gure arreta-gaitasuna zatikatu egin da. Saturazio egoera horretan, ezinbestekoa da norbere publiko potentzialaren aurrean ikusgai bihurtzea, kontuan izan zaitzaten.

«Internetek ikusgaitasuna demokratizatzen duela da alde ona. Online plataforma eta aplikazioak egoki ezarritako doako tresnak dira, gure bezeroen aurrean kokapen onena hartzeko baliagarri zaizkigunak. Gainera, sareak merkatua segmentatzeko eta zehazki nori zuzendu behar garen identifikatzeko aukera ematen digu»

Egungo merkatu eta marketinaren funtzionamendua ulertzeko, bi ideia funtsezko kontuan hartu behar ditugu:

- **Egun, merkatuak elkarrizketak dira.**

*Alde batetik, tresna digitalei esker, mezu bat zabaltzea inoiz baino bizkorragoa eta merkeagoa da. Informazioa eta iritzia ezin sumatuzko abiaduraz hedatzen dira eta eskala*

10. Cristina Aced, Neus Arques, Magali Benitez, Bell LLodra eta Eva San Agustin. Ikusgaitasuna. Norbere izen ona interneten nola kudeatu. [linean]. [http://www.visibilidad.net/pdf/visibilidad\\_primercapitulo.pdf](http://www.visibilidad.net/pdf/visibilidad_primercapitulo.pdf) [kontsulta: 2011eko martxoaren 22a]

gero eta handiago eta aldi berean aldakor batean. Bestalde, hainbesteko eskaintza-dibertsifikazioak kontsumitzaile bezala «aukera arrazional» bat egiteko gaitasun gabe uzten gaitu. Horregatik, gain-eskaintzaz gainezka, gero eta gehiago fio gara preskripzioez, hau da, beste batek iritzi duenaz. Hortik dator elkarrizketaren balio preskriptiboa.

• **Egun, dirua ez da lehengai urria: arreta-gaitasuna da.**

*Ikusgaitasunik gabe salmentarik ez dagoen modu bertsuan, arreta gabe ez dago erre-akziorik. Marka bati arretarik jartzen ez badiogu, nekez erosiko ditugu bere produktuak. Profesional bati arretarik ez badiogu jartzen, nekez kontratatuko dugu. Ikusgaitasunak erabiltzailearen arreta behar du. Erronka «publizitate-zarataren muga» gainditzean eta gure egungo bezero eta bezero potentzialentzako ikusgai bihurtzean datza*

**Guztiontzako ikusgaitasuna: Elitismotik demokratizaziora**

*«Demokratizatutako ikusgaitasun» hori teknologia berriek merkatuak elkarrizketa bihurtzen dituztelako da posible. Horietan, komunikabideek eginkizun garrantzitsua betetzen jarraitzen dute, baina informazio-hedapenaren monopoliorik ez dute jada. Komunikabide sozialak (social media), erabiltzaileak berak edukia sortzen duen horiek, gordian dira. Hasieran, bitarteko horiek web pertsonala, foroa eta komunitatea izan ziren. Gaur egun blogak, wikiak, podcastak, YouTubeko bideoak, MySpaceko miniatariak, elkarbanatutako markadoreak...ere badira*

**Web 2.0: Nahaspila digital berriaren ahalmena**

*Ikusgaitasuna eta norbere izen ona kudeatzeko, Web 2.0 kontzeptuaren adiera hau interesatzen zaigu gehien: **erabiltzaileak jokabide aktiboa duen online plataforma**. Inguru digital berri horretan, jada ez gara bakarrik hartzaileak, tresna teknologikoak erabili ditzakegu **hainbat motatako edukiak sortu eta elkarbanatzeko**, hala nola, argazkiak, bideoak zein testu-edukiak: blogak, iruzkinak foroetan, komunitate birtualak, etab.*

**Bost ideia gako<sup>11</sup>**


- Gehiegizko eskaintza dagoen mundu honetan, preskripzioaz fio gara, besteen iritziez, erabakiez.
- Teknologia berriek **ikusgaitasuna demokratizatzen dute**. Nahi duenak bere edukiak argitaratu ditzake, kostu irrigarri baten truke.
- Mundu fisikoaren mugak gaindituta, teknologia berriek **itzal luzeko ekonomiak eta hobi-merkatuak agertzea** ahalbidetzen dute
- **Jakintza**, sailkapen editoriala izan ordez, **kolektiboaren ondasuna da, alegia, taxonomia kolektiborako bere sistema darabilen taldearena: etiketak**.
- Norbere izen onak axola du. **Nahitaezkoa da sareak guri buruz esaten duena eta horren eragin posiblea aldizka berrikustea eta aldatzen parte-hartzea.**

11. Cristina Aced, Neus Arques, Magali Benitez, Bell LLodra eta Eva San Agustin. Ikusgaitasuna. Norbere izen ona interneten nola kudeatu. [linean]. [http://www.visibilidad.net/pdf/visibilidad\\_primercapitulo.pdf](http://www.visibilidad.net/pdf/visibilidad_primercapitulo.pdf) [kontsulta: 2011eko martxoaren 22a]

**Online komunikaziorako tresnak.**

PLAYBOOK liburua aurkeztuko dizuegu<sup>12</sup>, eduki-marketinerako estrategiei buruzko liburua, Joe Pulizzik eta Jonathan Kranzek idatzia, online komunikazioaren bitartez bezeroekin konektatzeko 42 modu aurkezten dituena. Aurkezpenean agertzen denaren arabera, eduki-marketina *bezeroek zehazki zer jakin behar duten ulertu eta era egoki eta sinesgarrian ematea* da. Dokumentu honetan horretarako tarterik ez dagoenez, haur eta gazteen politikak komunikatzeko tresna baliagarri zenbait baino ez ditugu zerrendatuko. Hala ere, eduki osoa ezagutzeko gonbita luzatzen dizuegu: [www.junta42.com/media/J42\\_playbook\\_es.pdf](http://www.junta42.com/media/J42_playbook_es.pdf)

1. White Paper /Liburu Zuria	27. Wikia	36. Markatze soziala
2. eBook / Liburu elektronikoa	28. Facebook mugimendua	37. Prentsa jakinarazpenak
3. Liburua	29. Argazkiak elkarbanatzea	38. Online argitalpenetarako zentroa
4. Aldizkari pertsonalizatuak	30. Sare sozial pertsonalizatua	39. Hitzaldi elektronikoa/Webcasta
5. Aldizkari digitala	31. Online bitartekoak	40. Birak
6. Aldizkari publizitarioa	32. Eduki plataforma	41. Mahai inguruak
7. Audioliburua	33. Microbloggina	42. Telemintegia
8. Kasu-ikerketa	34. Bideoa	
9. Artikulua	35. Azoka birtuala	
10. Komikia		
11. Sektorearen ranking-sistema		
12. Gomendioak		
13. Aldizkari elektronikoa		
14. Papereko aldizkari elektronikoa		
15. Bloga		
16. Podcasta		
17. Bideobloga		
18. Trebakuntza elektronikoa		
19. Aplikazio mugikorra		
20. Online-jokoak		
21. Trepeta		
22. Facebook-eko aplikazioa		
23. Eduki-tresna		
24. Pantailako bideoa		
25. Konpainia ardatz duen komunitatea		
26. Bezeroa ardatz duen komunitatea		



12. Kranz, Jonathan; Pulizzi, Joe. Content Marketing Playbook: 42 Ways to Connect with Customers = Libro de estrategias de marketing de contenidos. 42 formas de conectar con tus clientes. [lineal]. [http://www.junta42.com/media/J42\\_playbook\\_es.pdf](http://www.junta42.com/media/J42_playbook_es.pdf) [kontsulta: 2012eko urtarrilaren 30a]

# Proposamenen dokumentua:

**Irizpideak Gaztematikako barne komunikazioaren diseinua egiteko**



Mesanotxeanen laborategian «Komunikazioarekiko hurbilketa Gaztematikan» oinarritzko dokumentua irakurri ondoren, aurretiko hiru ondorio atera genituen:

Lehena, dokumentu hau komunikazioaren funtsezko elementuetara hurbiltzen gaituen erradiografia global gisa aurkeztea, xedea, helburuak, eragileak, hartzaileak, eta jarduera ildoak biltzen baititu.

Bigarrena, esku artean dugun gaia oso zabala denez, laborategi honen aztergaia mugatu behar dela.

Eta hirugarrena, gure aztergaia Gaztematikako barne komunikazioa egituratzen duten elementuetara hurbiltzea izango dela erabakitzea.

Laborategia aurrez aurreko bi saiotan (offline) eta saio digital batean (online) egin zen. Lehenengo laborategian, komunikazioaren puzzlearen piezak ikusi genituen (osagaiak, igorleak eta hartzaileak, moduak, kanalak, espazioak, tresnak...). Halaber, Gaztematikako komunikazioaren oraingo maparen lehen zirriborroa egin genuen, eta bukatzeko, Gipuzkoako haurren eta gazteen sustapenerako sisteman ezarri beharreko komunikazioko esparru eta tresna berriak ere identifikatu genituen.

Hemezortzi esparru eta tresna identifikatu genituen, horregatik, laborategiaren saio birtual bat egitea erabaki genuen, azterketan lehenetsi beharreko esparruak zehazte aldera. Inprimaki digital baten bidez, Gaztematikako hiru gunetako bakoitzean (lurraldea, lurraldea/tokikoa, tokikoa) bi esparru /tresna aukeratzea proposatu genuen. Inprimaki honen bidez lortutako erantzunei esker, laborategien parte-hartzaileek lehenesten ziztuzten komunikazioko sei esparruak zehaztu genituen.

Aurrez aurreko bigarren laborategiaren helburua hautatutako sei komunikazio esparru horietan komunikazioa osatzen duten elementuetan sakontzea izan zen. Hona hemen zerrendatutako esparruak:

- Lurraldeko eskala
  - [www.gipuzkoagazteria.net](http://www.gipuzkoagazteria.net)
  - Haur eta Gazteen Sustapenerako Foru Unitatearen bilera irekiak
- Lurraldeko/tokiko eskala/
  - Foro teknikoa
  - Batzorde Iraunkorra
- Tokiko eskala
  - Gaztematikako tokiko batzordea
  - Udal informazio batzordea

Laborategi honetan gaira hurbiltzeko eta Gaztematikaren ikuspegitik komunikazio plan bat diseinatzeko kontuan hartu beharreko elementuez jabetzeko baliagarri izan dakigukeen esperimendu txiki bat egin dugu.

# 1. BARNEKO KOMUNIKAZIO SISTEMA DISEINATZERAKOAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ELEMENTUAK

## Zer da Gaztematikako barne komunikazioa?

Gaztematikako barne komunikazioaz hitz egiten dugunean, sistemaren eragile guztien artean sortutako komunikazio jarduera guztiez ari gara. Horrek esan nahi du hainbat kanal eta tresna eskaini behar ditugula komunikazio sare egonkorra sortzeko eta komunikazio arloko bost eragileen (politikariak, teknikariak, hezitzaileak, informatzaileak eta haur eta gazteen intereseko erakundeak) premiak asetzeko.

Bi esparruk dute lehentasuna barne komunikazioaren arloan: komunikazio sistemak eta pertsonen arteko komunikazioak. *Komunikazio sistemaren* barruan lan esparruen arteko komunikazio sistema osatzen duten elementu guztiak sartzen dira. Eta *pertsonen arteko komunikazioaren* barruan gure lan harreman guztietan egon daitezkeen entzute aktibo, truke, enpatia, asertibitate eta tankerako prozesuak biltzen dira.



Monografiko honen helburua komunikazio sistema eraikitzen duten elementuen oinarriko ezaugarriak identifikatzea izango da. Ezaugarri horiek emango dizkigute barneko komunikazio plana diseinatzeko jarraibideak. Datozen ataletan honako elementu hauen definiziora hurbiltzen saiatuko gara: barneko komunikazioaren norabidea, moduak, kanalak eta tresnak.

## Barneko komunikazioaren helburuak

Barneko komunikazioa kudeatzeko honako helburu hauek hartuko ditugu aintzat:

1. Gaztematikako eragile guztien parte-hartzea bermatuko duten komunikazio kanalak eskaintzea.
2. Gaztematikako lan esparru guztietan dauden komunikazio moduak, kanalak eta tresnak sistematizatzea eta optimizatzea.
3. Gaztematikako eragileen artean ikaskuntza prozesuak eta ezagutza teknikoa sortzeko prozesuak dinamizatzea, komunikazio kanal eta tresna berriak diseinatzea eta ezartzea lortzeko.
4. Sisteman parte hartzen duten pertsonen arteko lotura emozionala indartzea, eta

kanal iraunkorrak irekitzea, zalantzak, sentimenduak, desadostasunak eta aldaketarako proposamenak askatasunez adierazi ahal izateko.

5. Gaztematikako pertsona eta esparru guztiek sistemako eragileen aurrean duten ikusgarritasuna handitzea.


### Gaztematikako ekintza eskala

Gaztematikako egitura guztia lurraldean barrena ezartzeko irizpideari jarraiki diseinatu da. Hala, antolaketako hiru eskala daude: lurraldekoa, mistoa eta tokikoa.

**Lurraldeko eskala:** bertan lan esparruak partekatzen dira, eta lurraldeko (Gipuzkoa) zerbitzuak eta jarduerak garatzen dira.

**Eskala mistoa:** lurraldeko eta tokiko eskalen arteko topagunea da. Maila honetan lan esparru komunak daude, eta bi eskalen arteko zerbitzuak eta ekintzak egiten ditu.

**Tokiko eskala:** Udaleko lan esparruak partekatzeaz gain, bertako zerbitzu eta jarduerak garatzen ditu.



### Gaztematikaren barneko publikoak (eragileak) identifikatzea

Komunikazioa zeinen artean sortu behar dugun jakitea ezinbestekoa da, hau da, gure publikoa zein den identifikatzea. Gainera, publikoa multzotan ere banatu behar dugu, benetako komunikazio beharrak jakitea errazagoa izan dadin. Gure ekintzen hartzaileak zehaztea lortu ez badugu, nekez lortuko dugu barneko komunikazio plan eraginkorra diseinatzea.

Oro har, barneko publikotzat jotzen ditugu ardura politiko eta teknikoak zein gizarteak ordezkatzeko gaitasuna duten pertsona guztiak, baldin eta nolabaiteko lotura badute Gaztematikako egituraren espazio, zerbitzu eta ekintzekin.

#### LURRALDEKO ERAGILEAK

- Talde politikoak
- Gaztematikaren diputatu arduraduna
- Gaztematikaren arduradun politikoak
- Foru teknikariak
- Enpresetako teknikariak
- Elkarte teknifikatuak
- Teknifikatu gabeko elkarteak


#### TOKIKO ERAGILEAK

- Talde politikoak
- Gaztematikaren zinegotzi arduradunak
- Haur eta gazteen sustapenerako unitateko udal teknikariak
- Zerbitzuetako hezitzaileak
- Zerbitzuetako informatzaileak
- Elkarte teknifikatuak
- Teknifikatu gabeko elkarteak

### Barneko komunikazioaren norabidea


Gaztematikan bi norabide jar ditzakegu barneko komunikazioan:

**1. Bertikala:** erabakimen handieneko eta txikieneko instantzien artean egiten dena. Bi norabide daude: gorantz eta beherantz.



**Gorantz:** Sistemako pertsonen zuzendaritza teknikoaren edo politikoaren arduradunei helarazteko helburuarekin eginiko proposamenen, iradokizunen eta eskaeren multzoa da. Zenbait tresna: ebaluazio-bilerak, laneko batzordea, kexak eta erreklamazioak, laneko eskaerak, zuzendaritzarekin elkarrizketak...

**Beherantz:** zuzendaritza politiko eta teknikoak Gaztematik haur eta gazteen sustapenerako politika garatzeko dituen gunen, zerbitzu eta jardueretan parte hartzen duten pertsonen helarazten dizkien ildo estrategikoen eta jardunildoen multzoa da. Zenbait tresna: ahozko aginduak, barneko oharra, aldizkaria, iragarki-taula, informazio-bilerak, prestakuntza ikastaroak...





**BEHERANTZ**

- POLITIKARIAK > TEKNIKARIAK
- POLITIKARIAK > ERAGILEAK
- TEKNIKARIAK > ERAGILEAK
- TEKNIKARIAK > ERABILTZAILEAK



**GORANTZ**

- POLITIKARIAK > TEKNIKARIAK
- POLITIKARIAK > ERAGILEAK
- TEKNIKARIAK > ERAGILEAK
- TEKNIKARIAK > ERABILTZAILEAK

**2. Horizontala:** Sistemako eragileen egituretan (lurraldekoa, mistoa eta tokikoa) edo arloetan (politikoa, teknikoa edo soziala) garatutako komunikazio ekintzak eta esparruak dira. Zenbait esparru edo tresna: Mesanotxean, Foro Teknikoa, haurren eta gazteen sustapenerako foru unitatearen bilera...

**HORIZONTALA:**  
lurraldekoa, mistoa eta tokikoa

- POLITIKARIAK > POLITIKARIAK
- TEKNIKARIAK > TEKNIKARIAK
- ERAGILEAK > ERAGILEAK
- ERABILTZAILEAK > ERABILTZAILEAK


### Barneko komunikazio moduak

Komunikazio moduak bi motatakoak izan daitezke: komunikazio formala eta informala.



### Barneko komunikazioaren zuzeneko kanalak eta tresnak

Gaztematikan, kanal eta tresna hauek erabili ahal ditzakegu:




### Barneko komunikazioaren arduradunak

Sistemako pertsona guztiek izango dute zer egin barneko komunikazioan. Horrek esan nahi du pertsona bakoitzaren rola aldatu egiten dela, jarduera batzuetan igorle eta izango dira eta beste batzuetan hartzaile. Horregatik, hain zuzen, biziki garrantzitsua da gure eguneroko eginkizunak eta zereginak aztertzea, komunikatu behar ditugun edukiak pixkanaka deskubritzen joateko eta, horrela, Gaztematikako barneko komunikazioaren prozesuan dagokigun erantzukizuna hartzeko.

Oro har, eragile teknikoek lantaldeetako dinamizatzailerak egiten dute, hala ere, beste eragile batzuei partaidetza handiagoa eman behar zaiela antzematen da. Gai hori esparru edo talde bakoitzean aztertu beharko genuke.

### Komunikazioaren momentuak

Komunikazioko ekintza bakoitzak bere une zehatza edo denbora-tarte zehatza du. Hortaz, komunikazio plan batek egutegi bat eduki behar du, eta bertan, ekintza hori egiteko une egokienak zehaztuko dira.



### Xedea

Komunikazio jardueraren eginkizun nagusia Gaztematikak bere eskala eta zerbitzuetan ezarritako lan metodoarekin lotuta dago.


### Komunikazioaren edukiak

Komunikazioaren edukia komunikazio ekintzaren aurretik zehaztu beharreko elementua da. Eta berau komunikatzeko kanalik egokienak aukeratu behar dira.

Askotariko edukiak daude: urteko inplementazio plana, Gaztematikaren kudeaketa, zerbitzuak, baliabideak, profesionalak...


Interesgarria eta askotan ezinbestekoa da komunikazioko tresna espezifikoak lortzea (txostenak, gutunak, ikus-entzunezko euskarriak...).

## 2. BARNEKO KOMUNIKAZIO ESPARRUEN EGUNGO MAPA



## 3. UNE HONETAN LEHENETSI BEHARREKO KOMUNIKAZIO ESPARRUAK

### 3.1 GAZTEMATIKAN IDENTIFIKATUTAKO SEI ESPARRUAK



### 3.2. BARNE KOMUNIKAZIOAREN ESPARRUAK EDO TRESNAK ZEHAZTEKO FITXA

ESPARRUA				ESKALA	
KANALA	XEDEA	MODUA	NORABIDEA	EDUKIAK	ARDURADUNA

#### Gaztematikako barne komunikazioan ezarri beharreko lehentasunezko esparru batzuk

Bi esparrutan sakontzeko denbora baino ez genuen izan: **Foro Teknikoa** eta [www.gipuzkoagazteria.net](http://www.gipuzkoagazteria.net) (intraneta). Ondoren, Mesanotxean laborategian parte hartu zuten pertsonen agertutako ideietako batzuk jaso ditugu. Laborategian barne komunikazioko bi esparru hauen egoera aztertzeko eskatu genien, bai eta etorkizunean landu beharreko esparruez pentsatzeko ere.

<b>1. ESPARRUA</b>	Foro teknikoa	<b>ESKALA</b>	Lurraldekoa / tokikoa
--------------------	---------------	---------------	-----------------------

#### Komunikazio esparruaren elementuak:

##### 1. Esparru honetako komunikazio helburuak:

- Gaztematikako zerbitzu, programa eta jardueren alderdi orokor eta zehatzei buruzko informazioa helaraztea.
- Gaztematikako *urteko ezarpen planaren* plangintzari, jarraipenari eta ebaluazioari buruzko informazioa helaraztea.
- Gaztematikako tokiko eta lurraldeko teknikarien artean komunikazio sarea sortzea.
- Lantalde teknikoari informazio nahikoa ematea urteko ezarpen planaren gainean erabakitze gaia izan dadin.
- Gipuzkoan haurren eta gazteen sustapenaren arloan lan egiten duten teknikari guztien berri ematea.
- Komunikazio esparru hauen bidez talde honetako kide izatearen sentimendua indartzea.
- Foro Teknikoan egindako lanaren berri ematea, eta hainbat eragilek jarraipena egitea ahalbidetzea.



## 2. Gaztematikako ekintza eskala:

Foro Teknikoa udal eta foru teknikari arduradunak elkartzeko eta gure lurraldeko haurren eta gazteen sustapenarekin lotutako gai guztien gainean eztabaidatzeko esparrua da.

## 3. Komunikazio ekintza zer barneko publikori (eragileak) zuzentzen zaion identifikatzea:

Gaur egun, funtsean foru eta udal teknikarien kolektiboari dago zuzenduta, eta jardueraren batean, kanpo komunikazioa ere egiten da eta herritar guztiei ere zuzentzen zaie.

## 4. Komunikazio kanalak, tresnak eta moduak:

### Formalak:

1. [www.gipuzkoagazteria.net](http://www.gipuzkoagazteria.net) (intraneta). Barneko lan tresna honen bidez hainbat komunikazio lan egiten ditugu: bileren deialdiak eta aktak jakinaraztea, laneko dokumentuak helaraztea, galderak eta iradokizunak egitea...
2. **Foroaren saioak.** Urtean hiru saio egiten dira, eta horietako bakoitzean urteko ezarpen planaren faseetako bat lantzen da: plangintza, jarraipena eta ebaluazioa eta proposamen berriak.
3. **Batzorde Iraunkorraren bilerak.** Gaztematikako plangintza eta jarraipenaz arduratzen den organoa.
4. **Urteko ezarpen plana.** Dokumentu honek jasotzen du Gaztematikaren urteko lan plana.
5. **Ezarpen planaren ebaluazio txostena.**
6. [www.gipuzkoagazteria.net](http://www.gipuzkoagazteria.net) (eduki publikoak). Webgune honek Gaztematikarekin zerikusia duten era guztietako gertaera eta edukien berri ematen du, interes orokorra badute.
7. **e-Gaztemira aldizkaria.** Albisteen artean Gaztematikarekin nolabaiteko lotura dutenak ere jasotzen dira, harpidetuta dauden pertsoneri ezagutarazteko.

### Informalak:

Esparru honen une libreetan egindako jarduera guztiak: hasi aurretik, atsedenaldiran eta amaieran.

### Edukiak:

- Gaztematikako jarduerari buruzko informazioa.
- Urteko ezarpen plana.
- Ezarpen planaren ebaluazio txostena.
- Legealdirako ildo estrategikoak.
- Egindako jardueraren publizitatea (Foroa).

### **Erantzukizuna:**

Gaztematikako Batzorde Iraunkorrek du komunikazio jarduera hau dinamizatzeko ardura.

### **Hobetu eta garatu beharreko zenbait alderdi**

#### **Komunikazio ekintza zein barneko publikori (eragileak) dagoen zuzenduta identifikatzea:**

Lehenetsuntzat jo da Foroaren komunikazio ekintza Gaztematikako barneko eragile guztiei irekitzea: eragile teknikoak (hezitzaileak, informatzaileak), eragile politikoak (tokikoak eta lurraldekoak) eta eragile sozialak (bereziki elkarteak).

Elkarteak bi taldetan banatzen dira: teknifikatuak eta boluntarioak. Komunikazioa diseinatzeko dugunean, kontuan hartu behar dugu lehen taldeak, gaur egun, Gaztematikako prozesuan parte hartzen duela, baina bigarren taldeak, aldiz, neurri handi batean ez duela ezagutzen Gipuzkoako haurren eta gazteen sustapenerako sistemaren errealitatea.

#### **Komunikazio kanalak, tresnak eta moduak:**

Komunikaziorako zuzeneko kanal berriak sortzea eragile politiko, tekniko eta sozialekin.

- Eragile politikoak: komunikaziorako zuzeneko kanala (talde edo kanal elektronikoa) eta tresna erraz eta praktikoak sortzeko lan egitea. Adibidez: *Zer da Gaztematika?* argitalpena
- Eragile teknikoak: dagozkien foroak erabiltzea Gaztematikaren urteko ezarpen planaren berri emateko.
- Eragile sozialak: komunikazioa erraztea elkarten foro sozial baten bidez.
- Tresnak: Gaztematikaren hainbat arlo zabaltzeko dokumentuak sortzeko aukera aztertzea: ezarpen plana, zerbitzuak, sistema...
- Tresnak: dokumentu hauetan guztietan alderdi prozesuala eta alderdi operatiboa jasotzea.
- Tresnak: euskarri dibulgatzaileagoak erabiltzeko ahalegina egitea (txosten txikiak, ikus-entzunezko materiala...).

#### **Edukiak:**

- Foro Teknikoaren eduki teknikoa Gaztematikako gainerako eragileekin partekatu behar da.
- Talde profesional eta sozial bakoitzaren egiazko behar komunikatiboei erantzutea.
- Sektore hauetako bakoitzean beharrezko diren eduki komunikatiboak eta tresnak iragazi, hautatu eta aukeratzea.

## 1. Komunikazio esparruaren elementuak:

### 1. Esparru honen komunikazio helburuak:

- Sistemaren berezko eragileen arteko komunikazio kanal dinamikoa izatea (politikariak, teknikariak, hezitzaileak, informatzaileak eta elkarteak).
- Kanal aktibo eta eraginkorra bermatzea Sistemaren berezko eragileak koordinatzeko jarduera esparru guztietan.
- Gaztematikako zerbitzu, programa eta jardueren alderdi orokor eta zehatzei buruzko informazioa helaraztea.
- Gaztematikaren egitura osatzen duten organoetan (Jarraipeneko Batzorde Mistoa, Foro Teknikoa, Hezitzaileen Foroa...) parte hartzen duten pertsonen arteko komunikazioa errazteko tresna izatea.
- Gaztematikak une honetan lantzen dituen proiektuen eta gaien gaineko lantaldeak sortzea eta dinamizatzea.
- Komunikazio bertikala eta horizontala ahalbidetzea Gaztematikako eragileen artean.
- Ezagutzaren kudeaketari laguntzen dion kanal bilakatzea, ondoko tresna hauek erabiliz: e-Gaztemira eta Mesanotxean.
- Online prestakuntzarako gune izatea, haurren eta gazteen sustapenaren arloan espezializatutako dokumentuen datu basea eskainita.
- Aurrez aurrekoa ordezkatzeko duen gune bilakatzea formatu digitalean eraginkortasun handiagoz egin daitezkeen jardueretan (koordinazioa, dokumentazioa, ebaluazioa...).

### 2. Gaztematikako ekintza eskala:

**www.gipuzkoagazteria.net** (intraneta den aldetik) hiru komunikazio eskalak barnean hartzen dituen Gaztematikaren kanala da. Lantaldeen sistemaren bitartez.

### 3. Komunikazio ekintza zein barneko publikori (eragileak) zuzentzen zaion identifikatzea:

Identifikatutako publikoak sistemaren berezko eragile guztiak dira: politikariak, teknikariak, hezitzaileak, informatzaileak eta elkarteak.

Gaur egun, garrantzi handiena, foru eta udal teknikarien arteko komunikazioak du.

Hala ere, informatzaile, hezitzaile eta elkarteekin lantaldeak ere badaude.

#### 4. Komunikazio kanalak, tresnak eta moduak:

##### Formalak:

**Lantaldeak.** Foru Aldundiaren eta Gaztematikako gainerako eragileen arteko komunikaziorako lehentasunezko kanal formala dira. [www.gipuzkoagazteria.net](http://www.gipuzkoagazteria.net) orrian jasota dauden lantaldeak, funtzioaren arabera, bi motatakoak dira: alde batetik, esparru iraunkorrei dagozkienak (Foro Teknikoa, hezitzaileak, informatzaileak...), eta bestetik, ezinbestean iraunkorrak ez diren lan esparruei dagozkienak (ume eta nerabeentzako balio anitzeko zerbitzuak definitzeko mahaiak, Mesanotxean...).

Gaztematika kanala. Webaren barruko atala da eta haren helburua Gaztematika jendeari modu errazean aurkeztea da.

**Datuen direktorioa. Gazte Sarea.** Sistemaren jarduerari eta atalei buruzko datuak gordetzen dituen aplikazio edo kanala da: zerbitzuak, unitateak, jarduerak, profesionalak... Datuok tratatu ondoren, eguneroko lanean behar ditugun informazio-komunikazioko tresnak sortu ahal izango ditugu (zerbitzu gidak, profesionalen direktorioa, programazioen zerrenda...).

**Dokumentuen datu basea.** Kanal honen bitartez eragileek interes teknikoko dokumentuak eskura ditzakete. Foru teknikariek kudeatzen dute dokumentazio hau.

**e-gaztemira.** Komunikazio tresna honek sistemako eragileei eta herritarrei, oro har, informazioa eta prestakuntza ematen dizkie Gipuzkoako haurren eta gazteen sustapenerako politikari buruz.

**Mesanotxean.** Lurraldeko eta tokiko esparruetako eragile teknikoen artean ezagutza eraikitzeko prozesua biltzen duen komunikazio tresna da.

##### Informalak:

Taldeko pertsonen artean ez dago komunikazio informalik.

##### Edukiak:

- Gaztematikaren jarduerari buruzko informazioa.
- Urteko ezarpen plana.
- Lantaldeak kudeatzeko beharrezko informazioa: deialdiak, materialak, guneak...
- Zerbitzuei, profesionaleri, programazioei, baliabide espazialei eta teknikoei buruzko datuak.
- Haurren eta gazteen sustapenari buruzko dokumentazio teknikoa.
- Azterketari eta jarduera ildoei buruzko informazioa.

##### Erantzukizuna:

Gaztematikako foru teknikariak arduratzen dira komunikazio jarduera hauek dinamizatzeaz.

Talde bakoitzak bere *moderatzailea* du. Ohikoa da eginkizun hau foru teknikari batek egitea.

Kanpoko enpresa batzuek komunikazio tresna hauek garatzen laguntzen dute (euskarri informatikoa edo dokumentu eta informazio edukien hornidura).

## 2. Hobetu eta garatu beharreko zenbait alderdi

### Gaztematikako eragileen arteko komunikazio kanalak sortu eta berritzea:

HEZITZAILEEN KANALA. Gaur egun oso gutxi erabiltzen da, eta hori gainditu behar da. Talde honen aurrez aurreko lana indartu ahala, kanal digitala ere indartuko da.

ELKARTEEN KANALA. Kanal honetan, hasieratik bertatik, formatu digitala lehenesten da elkarteen arteko komunikaziorako. Elkarteekin egindako diagnostikoa kontuan hartu beharko litzateke; bertan bi azpitalde ikusi dira: elkarte teknifikatuak eta teknifikatu gabek. Hortaz, helburuak ezberdinak izango dira talde bakoitzaren beharren arabera. Teknifikatu gabeko elkarteen azpitaldearen aldetik pixkanaka partaidetza handiagoa lortzeko interesa dago.

INFORMATZAILEEN KANALA. Hemen aurrez aurreko formatutik digitalerako trantsizio fasean gaude, informazio bulegoak ezin ditugulako itxi aurrez aurreko jarduerak egin birtartean. Gaur egun, ez da online bilerarik egiten, baina bai informazio eta koordinazio beharrei erantzun, zereginak eta programak banatu eta abar. Etorkizunari begira, garrantzitsua izan daiteke formatu honetan sakontzea.

GAZTESAREA. KANALA. Datuak biltzeko kanal egonkor hau tokiko eskalan eguneratzen ari da. Udal teknikariak inplikatzeko dira *Gaztematikaren tokiko sistemaren* datu basea informazio honekin elika dezaten: arduradun politikoak, arduradun teknikoak, hezitzaileak, informatzaileak, zerbitzuak, programak, ekipamenduak, baliabideak...

EZAGUTZAREN KUDEAKETA. Tresna digital eraginkorrak sortzea informazioa iragazi ahal izateko eta, haurren eta gazteen sustapenerako sistema honetan esku hartzen duten eragile edo kolektiboen arabera edukia eskaintzeko.

### Edukiak:

EDUKIEN EKOIZPEN PARTEKATUA. Eskala guztietan, eragile guztiei eta norabide guztietan informazio sortzaile izaten lagunduko gaituen metodologia sortu behar dugu.

### Erantzukizuna:

DINAMIZAZIOA. Komunikazioko espazio birtualak dinamizatu behar dira. Hartarako, bi alderdi landu behar ditugu: dinamizazioaz arduratzen diren pertsonen prestakuntza eta informazio ekoizle edo sortzailearen eginkizunaren dibertsifikazioa.

## mesanotxean bilduma

- 01.** Gazteak eta arriskuaren kudeaketa.
- 02.** Emantzipazioa eta norberaren autonomia.
- 03.** Gazte lokalak.
- 04.** Sare birtualak.
- 05.** Gazteentzako balio anitzeko zerbitzuak.
- 06.** Gipuzkoako elkarteek Gaztematikari egindako ekarpena.
- 07.** Haurrak, nerabeak eta gazteak sustatzeko zerbitzuen ebaluaketa.
- 08.** Gipuzkoako gazteria arloko profesionalak.
- 09.** Herritartasun aktiboa eraikitzen!
- 10.** Gaztematikak duen lekua Gazteriaren Euskal Legearen aurrean.
- 11.** Gaztematikaz kanpoko teknikariek duten iritzia



Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua  
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte

Gazteria Zuzendaritza Nagusia  
Dirección General de Juventud



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**